



EBAZPENA, 2022ko abenduaren 21ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2022-2023 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2022ko ekainaren 28ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituena.

Ikerketa Orokorrean, eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBAZTEN DUT:

Lehena.– I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoeen prestakuntzarako dirulaguntza berriak ematea, 2022-2023 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharrezko zenbatekoa adieraziz. Baita ere, I modalitateko onuradun bakoitzak (horrelakorik egonez gero) bidairako jasoko duen zenbatekoa aipatzen da.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.– II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 30. artikulua zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.– III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.– IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratu izanaren arrazoiak zehaztuz.

Bostgarrena.– Dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2022ko ekainaren 28ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 21ean.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ADOLFO MORAIS EZQUERRO